



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea



KOMUNIKAZIO LANABESAK

2019 / 2020

Moduluko
Irakas-Gida

Lehen Hezkuntzako Gradua

HEZKUNTZA, FILOSOFIA
ETA ANTROPOLOGIA
FAKULTATEA
FACULTAD
DE EDUCACIÓN, FILOSOFÍA
Y ANTROPOLOGÍA

INFORMAZIO ETA KOMUNIKAZIO TEKNOLOGIAK LEHEN HEZKUNTZAN

Daniel Losada
Lorea Fernández
Oihana Otazu
Eli Pérez
Margari León

KOMUNIKAZIO GAITASUNAREN GARAPENA II

Miren Koro Jauregi
Eli Areizaga
Eider Rodríguez

MUSIKA LEHEN HEZKUNTZAN

Lurdes Sagarzazu
Gotzon Ibarretxe (Koordinatzailea)

ARTEEN ETA IKUSIZKO KULTURAREN HEZKUNTZA

Alaitz Sasiain
Estíbaliz Jiménez de Aberasturi

Aurkibidea

1.- Sarrera.....	3
2.- Konpetentziak	4
2.1.- Moduluan lantzen diren Lehen Hezkuntza Graduko Konpetentziak	4
2.2.- Moduluko Ikaskuntza Emaidzak.....	5
3.- Taldearen Egitura	5
4.- Proiektua	6
4.1.- Zer da Artefaktu bat?.....	6
4.2.- Prozesua	6
4.3.- Gaiak.....	7
4.4.- Metodologia.....	7
4.4.1.- Dekalogoia	7
4.4.2.- Artefaktua	8
4.4.3.- Erakusketa.....	8
5.- Kronograma.....	9
6.- Ebaluazioa	9
6.1.- Ebaluazio Irizpideak.....	10
6.2.- Kalifikazioa.....	10
6.3.- Ebaluazio Tresna: Errubrika.....	10
7.- Eranskinak	13
7.1.- Artefaktu Adibideak	13
7.2.- Talde Inprimakia.....	16

1.- Sarrera

“Komunikazio Lanabesak” izeneko laugarren modulu honetan 4 irakasgaiek osatzen dute:

- ☒ Arteen eta Ikusizko Kulturaren Hezkuntza
- ☒ Komunikazio Gaitasunaren Garapena II
- ☒ Informazio eta Komunikazio Teknologiak Lehen Hezkuntzan
- ☒ Musika Lehen Hezkuntzan

Irakasgai bakoitzak Diziplina arteko LANari (DILAN) kreditu bana eskainiko dio. Guztira, lan hau aurrera eramateko bertaratu beharreko 40 ordu izango dira eta beste 60 ordu zuzendutako lanen bitartez. Beraz, DILANak 4 kreditu ECTS izango ditu.



Irudia 1. Lehen Hezkuntzako Bigarren ikasturteko Komunikazio Lanabesen Diziplina arteko lana

2.- Konpetentziak

2.1.- Moduluan lantzen diren Lehen Hezkuntza Gradu Konpetentziak

Ikasgaien konpetentziak aztertuz, “Komunikazio Lanabesak” izeneko modulua osatzen duten ikasgaiak komunean dituzten arloak honako hauek dira:

- Hezkuntzaren praktikaren inguruan gogoeta egitea
- Ikus-entzunezko Hizkuntza
- Talde Lana
- Pentsamendu Kritikoa
- Kulturartekotasuna
- Aho eta Idatzizko Hizkuntza

Komunak diren arlo hauek harreman zuzena dute Lehen Hezkuntzako 5 konpetentziekin (Ikus Taula 1 eta Taula 2; G03, G08, G10, G11 eta G13).

Taula 1. Lehen Hezkuntza Gradu Konpetentziak

LEHEN HEZKUNTZA GRADUKO ZEHARKAKO KONPETENTZIAK	
G01	Lehen Hezkuntzako curriculum-arlo batzuk ezagutzea, eta baita horien artean dagoen diziplina arteko harremana, ebaluazio-irizpideak eta dagozkien irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesuen inguruko ezagutza didaktikoen multzoa ere.
G02	Irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesuak diseinatzea eta horien plangintza eta ebaluazioa egitea, nola banaka-banaka, hala ikastegiko beste irakasle eta profesional batzuekin lankidetzan.
G03	Kultura anitzeko testuinguruetan eta testuinguru eleanitzetan hizkuntza-ikaskuntzarako egoerei eraginkortasunez aurre egitea. Eskolako curriculumean bildutako zientzia- eta kultura-ezagutza guztien testuak irakurtzeko eta horien iruzkin kritikoa egiteko joera sustatzea.
G07	Hezkuntza-komunitateko eta gizarte-ingurune hainbat sektoreekin lankidetzan jardutea. Irakaskuntza-funtzioaren dimentsio hezitzailea onartzea eta herritar aktiboek begirako hezkuntza demokratikoa sustatzea.
G08	Harreman kritiko eta autonomo bat edukitzea jakintzei, balioei eta gizarte-erakunde publiko nahiz pribatuei dagokienez.
G10	Ikasgelako praktikei buruzko gogoeta egitea, irakaskuntza-jarduna berritzeko eta hobetzeko. Ikaskuntza autonomorako eta lankidetzan oinarritutako ikaskuntzarako ohiturak eta trebetasunak eskuratzea, eta ikasleen artean sustatzea.
G11	Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak ezagutzea eta ikasgeletan aplikatzea. Ikaskuntza, gizalegezko prestakuntza eta kultura-aberastasuna sustatuko dituen ikus-entzunezko informazioa hautatze bidez bereiztea.
G13	Euskaraz eta gaztelaniaz hitz egiten jakitea. Hizkuntza behar bezala ulertzen eta hitz egiten badakiela erakutsi beharko du, hezkuntza-testuinguru eleanitzean bere lanbidea egikaritzeko moduan eta hizkuntza- eta kultura-aniztasunari begira errespetuan oinarritutako jarrerak landuta.

2.2.- Moduluko Ikaskuntza Emaitzak

Proiektu honetan espero diren Ikaskuntza Emaitzak honako hauek dira:

Taula 2. "Komunikazio Lanabesak" moduluko Ikaskuntza Emaitzak

IKASKUNTZA EMAITZAK		<u>G03</u>	<u>G08</u>	<u>G10</u>	<u>G11</u>	<u>G13</u>
IE1	Musikarekin, Plastikarekin, Hizkuntzarekin eta IKTekin erlazioa duen egungo gai baten inguruan talde hausnarketa egitea eta ideia nagusienak dekalogo batean sintetizatzea eta zerrendatzea.	X		X		
IE2	Ikasle taldeak aukeratutako gaiaren inguruan pentsamendu kritikoa sortarazten duen artefaktu bat diseinatzea eta sortzea Musika, Plastika, Hizkuntza eta IKT arloak aintzat hartuz.		X		X	
IE3	Aukeratutako gaiaren inguruan pentsamendu kritikoa sortarazten duen artefaktuaren aurkezpena egitea		X			X

3.- Taldearen Egitura

Moduluko Ikaskuntza Emaitza hauek lortzeko, ikasleek DILAN honetan proiektu bat garatu beharko dute taldeka. Erabiliko den metodologia Proiektuetan Oinarrituriko Ikaskuntza izango da.

Lan taldeak honako ezaugarriak izango ditu:

- Taldeak egonkorrak izango dira.
- "Informazio Komunikazio Teknologiak Lehen Hezkuntzan" irakasgaiaren Ordenagailu Taldearen (GO1, GO2, GO3, GO4) arabera egingo dira.
- Taldekideen kopurua 5ekoa izango da.

"Informazio Komunikazio Teknologiak Lehen Hezkuntzan" irakasgaiaren Ordenagailu Taldeko irakasleek zerrendaren arabera korrelatiboki egingo dituzte ikasle-taldeak. Esleitutako talde bakoitzak erantsita dagoen fitxa (7.2. Modulu Fitxa) bete egin beharko du eta IRAILAREN 23an eta bere "Informazio Komunikazio Teknologiak Lehen Hezkuntzan" irakasgaiaren Ordenagailu Taldeko irakasleari eman beharko dio.

Talde bakoitzari IRAILAREN 25ean lana gidatzeko TUTORE BAT esleituko zaio. Tutore honen funtzioa GAIA AUKERATU eta DEKALOGOA EGITEN LAGUNTZEA soilik izango da. Bestelako lanak egiteko diziplina bakoitzeko irakasleek esku-hartu eta erabakiak hartuko dituzte.

4.- Proiektua

4.1.- Zer da Artefaktu bat?

Pentsamendu kritikoa sortarazten duen zati, material, osagai fisiko edota ukiezin ezberdinak izan ditzakeen konposizioa da.

4.2.- Prozesua

Diziplina arteko Lanaren izenburua “Pentsamendu Kritikoa ARTEFAKTUA” da. Talde bakoitzak beherago zehaztutako GAI BATEN INGURUAN PENTSAMENDU KRITIKOA ERABILIZ GOGOETA EGIN BEHAR DU. Gogoeta hori islatzeko hiru pausu emango dira:

1. HAUSNARKETA FASEA:

- a. Gogoeta hori gehienez bi orrialdeko DEKALOGO idatzi batean sintetizatuko da.

2. SORTZE FASEA:

- a. Dekalogo horri jarraituz, ARTEFAKTU bat sortu beharko dute pentsamendu kritikoa, balore ezberdinak, taldearen posizionamendua... islatuz.

3. ZABALTZE FASEA

- a. Lan talde guztiek beraien artefaktuarekin ERAKUSKETA batean parte hartu beharko dute.

4.3.- Gaiak

Modulu lana egiteko landu daitezkeen gaiak honako hauek dira:

- Disziplina eskolan
- Aniztasunaren trataera
- Komunikazioa - Inkomunikazioa
- Eskola Jazarpena
- Eten Digitala
- Pribatutasuna eta Segurtasuna Internet
- Lehiakortasuna
- Generoa eta Sexualitatea
- Modaren eragina gizartean
- Gorputz eta Zeinu Komunikazioa
- Gorputz Adierazpena
- Giza baloreak
- Neutralitatea
- Erantzukizuna mass-mediaren aurrean
- IKTen kontrola
- Zientzia, Artea eta Literatura
- Bakea, Gerra.
- Umorea

Gai zerrenda hau proposamen berrietara irekita dago.

4.4.- Metodologia

Esan dugun bezala, Disziplina arteko Lana hiru emangarri edota eginkizun nagusitan banaturik dago: Dekalogoak, Artefaktua eta Erakusketa.

4.4.1.- Dekalogoak

Dekalogoaren ezaugarriak honako hauek dira:

- Lan taldeek gaiaren inguruan eztabaidatu ondoren sintesi lan arduratsu bat egin beharko dute.
- Gehienez Dekalogoak bi orrialde izango ditu.
- Hamar puntutako idazki bat izango da.
- Puntu bakoitzak parrafo bat izango du, 3-4 esaldi duela.
- Tutoreak Dekalogoaren zirriborroa eta Artefaktuaren hasierako ideia URRIAREN 11n onartu beharko du.
- Tutoreari Azken Dekalogoak ABENDUAREN 13an entregatuko zaio.

4.4.2.- Artefaktua

Artefaktuaren ezaugarriak honako hauek dira:

- Artefaktua soilik elementu fisikoekin bitartez egin daiteke edo soilik elementu ukiezinen bitartez, baina baita bien arteko nahasketa batekin ere. Adibidez, Gorputz adierazpen bat, Objektu fisiko bat, adierazpen musikala, bideoa...
- Artefaktua emanaldi, antzerki, performance edo antzeko adierazpena denean bideoan grabatu beharko da aurkezpen egunerako.
- Artefaktuaren baitan lau arlo landu behar dira, nahiz eta sakontasun maila ezberdinarekin izan.
- Tutoreari Artefaktua jasotzen duen bideoa ABENDUAREN 13an entregatuko zaio.

4.4.3.- Erakusketa

Erakusketaren ezaugarriak honako hauek dira:

- Artefaktuaren arabera ikastegiko espazio batean edo bestean aurkeztuko da: Plastika gelan, Musika gelan, Psikomotrizitate gelan, Irakurketa gelan, gela arrunt batean, pasiloan...
- Artefaktuaren erakusketan Lan Talde bakoitzak 10 MINUTUKO AURKEZPEN bat egingo du.
- Bideoa erabiliz gero, honek 3 minutuko iraupena izango du, gehienez. Prozesuaren azalpenak beste 5 minutu izango ditu.
- EZIN izango da Power-point erako euskarririk erabili, ezta informazioa irakurri ere.
- Erakusketa ABENDUAREN 17aren eta 18aren artean izango da.

5.- Kronograma

Iraila/Septiembre		Urria/Octubre											
A	A	A	O	O	L	I	A	A	A	O	O	L	I
						1							
2	3	4	5	6	7	8	1	2	3	4	5	6	
9	10	11	12	13	14	15	7	8	9	10	11	12	13
16	17	18	19	20	21	22	14	15	16	17	18	19	20
23	24	25	26	27	28	29	21	22	23	24	25	26	27
30							28	29	30	31			

Azaroa/Noviembre		Abendua/Diciembre											
A	A	A	O	O	L	I	A	A	A	O	O	L	I
				1	2	3							1
4	5	6	7	8	9	10	2	3	4	5	6	7	8
11	12	13	14	15	16	17	9	10	11	12	13	14	15
18	19	20	21	22	23	24	16	17	18	19	20	21	22
25	26	27	28	29	30		23	24	25	26	27	28	29
							30	31					

UR12 AZ01 AB06 AB09	Oporraldiak eta jaiegunak	IR23 IR25 UR11 AB13	Lan Taldearen Fitxa Entregatu Moduluko Lan Taldeen Tutore Esleipena Dekalogoaren Zirriborroa Entregatu Azken Dekalogo eta Bideoa Entregatu
UR14 AZ15	Practicum I	AB17 AB18	Erakusketa eta Aurkezpena Erakusketa eta Aurkezpena

6.- Ebaluazioa

Diziplina arteko lan honetan parte hartzen duten irakasgai guztiek beraien kalifikazioaren %15 eskeiniko diote:

Taula 3. Irakasgaien aportazioa ebaluazioan kreditutan eta kalifikazioan

IRAKASGAIA	KALIFIKAZIOA	KREDITUAK
Arteen eta Ikusizko Kulturaren Hezkuntza	1,5	1
Informazio eta Komunikazio Teknologiak Lehen Hezkuntzan	1,5	1
Musika Lehen Hezkuntzan	1,5	1
Komunikazio Gaitasunaren Garapena II	1,5	1
GUZTIRA		4 Kreditu

6.1.- Ebaluazio Irizpideak

Ikaskuntza Emaitzak ebaluatzeko honako Ebaluazio Irizpide kontuan hartuko ditugu:

Taula 4. Moduluko Ebaluazio irizpideak Ikaskuntza Emaitzekin erkatuz

EBALUAZIO IRIZPIDEAK		IE1	IE2	IE3
EI1	Talde Lanaren Prozesua (Antolaketa eta Informazio Iturriak)	X	X	X
EI2	Dekalogoaren Hausnarketa (Alderdi Formalak eta Edukia)	X		
EI3	Artefaktuaren azken emaitza (Osagai Plastikoak, Osagai Musikalak, Osagai Teknologikoak eta Digitalak, Komunikagarritasuna eta Pentsamendu Kritikoa)		X	
EI4	Aurkezpena (Aho Hizkuntza, Gorputz Hizkuntza, Edukiaren Kontrola, Originaltasuna eta Sintesiaren Kalitatea)			X

6.2.- Kalifikazioa

Lan talde bakoitzeko tutoreak aurretiaz aipaturiko ebaluazio irizpideak baloratuko ditu.

Taula 5. DILANren ebaluazio prozedura

EMANGARRIA	EBALUATZAILEA	NOTA
Dekalogo	Tutorea	0,5
Artefaktua	Tutorea	0,5
Erakusketaren Aurkezpena	Tutorea	0,5
GUZTIRA		1,5

Modulu lana gainditzeko 0,5 puntu edo gehiago lortu beharko du taldeak. Taldeak modulua gainditzen ez badu, taldekide hauek irakasgaien kalifikazioetan ere EZ-GAINDITUA izango dute.

6.3.- Ebaluazio Tresna: Errubrika

EBALUAZIO IRIZPIDEAK / ESKALA		ESKASA (%20)	BAXUA (%40)	NAHIKOA (%60)	ONDO (%80)	BIKAIN (%100)
		20,00%	40,00%	60,00%	80,00%	100,00%
TALDE LANAREN PROZESUA	0,2					
Talde Lana (Bilerak, Parte-hartze mota)	0,1	Lan taldea 3 ALDIZ BAINO GUTXIAGO BILDU dira eta bilera horietan TALDEKIDE GUZTIEK EZ DIRA EGON.	Lan taldeak 3 ETA 5 bilera egin ditu eta bilera horietan TALDEKIDE GUZTIEK EZ DIRA EGON.	Lan taldeak 3 ETA 5 bilera egin ditu eta bilera horietan TALDEKIDE GUZTIEK EGON DIRA.	Lan taldeak 5 bilera baino gehiago egin ditu eta bilera horietan TALDEKIDE GUZTIEK EGON DIRA.	Lan taldeak 5 bilera baino gehiago egin ditu eta bilera horietan TALDEKIDE GUZTIEK PARTE HARTZE AKTIBOA IZAN DUTE.

Informazio-iturriak (Kopurua, Kalitatea)	0,1	Talde lana egiteko INFORMAZIO ITURRI BAKARRA erabili dute, baina LORTUTAKO INFORMAZIOA GUTXI ETA EZ OSO ESANGURATSUA izan da.	Talde lana egiteko 2 INFORMAZIO-ITURRI erabili dituzte, baina LORTUTAKO INFORMAZIOA GUTXI ETA EZ OSO ESANGURATSUA izan da.	Talde lana egiteko 2 INFORMAZIO-ITURRI erabili dituzte, baina LORTUTAKO INFORMAZIOA NAHIKOA baina EZ OSO ESANGURATSUA izan da.	Talde lana egiteko 3 INFORMAZIO-ITURRI erabili dituzte eta LORTUTAKO INFORMAZIOA DEZENTE eta ESANGURATSUA izan da.	Talde lana egiteko INFORMAZIO ITURRI ANITZAK erabili dituzte eta LORTUTAKO INFORMAZIOA UGARI eta OSO ESANGURATSUA izan da.
DEKALOGOIA	0,3					
Alderdi Formalak (Errore Ortografiko eta Gramatikak, Hiztegia)	0,1	Dekalogoak ERRORE GRAMATIKAL ETA ORTOGRAFIKO ANITZAK ditu eta HIZTEGIA OSO MURRITZA da, testua IRAKURTEZINA BILAKATUZ.	Dekalogoak GUTXIENEZ 3 ERRORE GRAMATIKAL EDOTA ORTOGRAFIKO GARRANTZITSUAK ditu eta HIZTEGI MURRITZA du.	Dekalogoak 2 ERRORE GRAMATIKAL EDOTA ORTOGRAFIKO GARRANTZITSUAK ditu eta HIZTEGI EGOKIA du.	Dekalogoak GEHIENEZ ERRORE GRAMATIKAL EDOTA ORTOGRAFIKO GARRANTZITSUAK ditu eta GAIA JORRATZEKO HIZTEGI APROPOSA du	Dekalogoak EZ DU ERRORE GRAMATIKAL EDOTA ORTOGRAFIKORIK eta GAIA JORRATZEKO HIZTEGI APROPOSA ETA ABERATSA du.
Edukia (Kopurua, Pentsamendu Kritikoa)	0,2	Dekalogoak aukeratutako gai baten inguruko HAMAR IDEI BAINO GUTXIAGO ditu eta hauen artean HAUSNARKETA FALTA AGERIKOA da.	Dekalogoak aukeratutako gai baten inguruko HAMAR IDEI ditu baina BAIEZTAPENEK EZ DUTE PENTSAMENDU KRITIKOA SORTARAZTEN.	Dekalogoak aukeratutako gai baten inguruko HAMAR IDEI ditu baina ZENBAIT BAIEZTAPENEK (5 BAINO GUTXIAGO) SOILIK PENTSAMENDU KRITIKOA SORTARAZTEN.	Dekalogoak aukeratutako gai baten inguruko HAMAR IDEI ditu eta BAIEZTAPEN GEHIENEK (5-9 ARTEAN) PENTSAMENDU KRITIKOA SORTARAZTEN DUTE.	Dekalogoak aukeratutako gai baten inguruko HAMAR IDEI ditu eta BAIEZTAPEN GUZTIEK PENTSAMENDU KRITIKOA SORTARAZTEN DUTE.
ARTEFAKTUA	0,5					
Osagai Plastikoak	0,1	Artefaktuak EZ DU OSAGAI PLASTIKORIK edo OSO GUTXI DAUDE.	Artefaktuan osagai plastikoak OSO GAIZKI ERABILI dira, BESTE OSAGAIEKIN INPLEMENTAZIO A LORTU GABE edo OSO MAILA ESKASEAN lortuz.	Artefaktuan osagai plastikoak DEZENTE erabili dira BESTE OSAGAIEKIN INPLEMENTAZIO EGOKIA lortuz.	Artefaktuan osagai plastikoak ONDO erabili dira BESTE OSAGAIEKIN INPLEMENTAZIO EGOKIA lortuz.	Artefaktuan osagai plastikoak BIKAIN erabili dira BESTE OSAGAIEKIN INPLEMENTAZIO EGOKIA lortuz.
Osagai Musikalak	0,1	Artefaktuak EZ DU OSAGAI MUSIKALIK edo OSO GUTXI DAUDE.	Artefaktuan osagai musikalak OSO GAIZKI ERABILI dira, BESTE OSAGAIEKIN INPLEMENTAZIO A LORTU GABE edo OSO MAILA ESKASEAN lortuz.	Artefaktuan osagai musikalak DEZENTE erabili dira BESTE OSAGAIEKIN INPLEMENTAZIO EGOKIA lortuz.	Artefaktuan osagai musikalak ONDO erabili dira BESTE OSAGAIEKIN INPLEMENTAZIO EGOKIA lortuz.	Artefaktuan osagai musikalak BIKAIN erabili dira BESTE OSAGAIEKIN INPLEMENTAZIO EGOKIA lortuz.
Osagai Teknologikoak (Digitalak)	0,1	Artefaktuak EZ DU OSAGAI TEKNOLOGIKORIK edo OSO GUTXI DAUDE.	Artefaktuan osagai teknologikoak OSO GAIZKI ERABILI dira, BESTE OSAGAIEKIN INPLEMENTAZIO A LORTU GABE edo OSO MAILA ESKASEAN lortuz.	Artefaktuan osagai teknologikoak DEZENTE erabili dira BESTE OSAGAIEKIN INPLEMENTAZIO EGOKIA lortuz.	Artefaktuan osagai teknologikoak ONDO erabili dira BESTE OSAGAIEKIN INPLEMENTAZIO EGOKIA lortuz.	Artefaktuan osagai teknologikoak BIKAIN erabili dira BESTE OSAGAIEKIN INPLEMENTAZIO EGOKIA lortuz.
Komunikagarritasuna (Zerikusia, Pentsamendu Kritikoa)	0,1	Artefaktuak aukeratutako gaiaren inguruan ZERIKUSI GUTXI	Artefaktuak aukeratutako gaiaren inguruan ZERIKUSIA DU baina EZ DU	Artefaktuak aukeratutako gaiaren inguruan ZERIKUSI	Artefaktuak aukeratutako gaiaren inguruko PROBLEMATIKA	Artefaktuak aukeratutako gaiaren inguruko PROBLEMATIKA

		DU, EZ BAITU PENTSAMENDU KRITIKORIK SORTARAZTEN .	PENTSAMENDU KRITIKORIK SORTARAZTEN.	ZUZENA DU eta IDEI ISOLATU BATZUEN INGURUAN PENTSAMENDU KRITIKOA SORTARAZTEN DU.	ZEHATZ BAT ONDO ISLATZEN DU eta H PENTSAMENDU KRITIKOA SORTARAZIZ.	BAT BAINO GEHIAGO BIKAIN ISLATZEN DITU eta PENTSAMENDU KRITIKOA SORTARAZIZ.
Originaltasuna (Sormena, Ideia Originalak)	0,1	Artefaktuak EZ DU SORMEN LANIK ERAKUSTEN EZTA IDEIA ORIGINALIK ERE.	Artefaktuak SORMEN IZPI BATZUK erakusten ditu, eta ZENBAIT ZANTZU ORIGINAL aipa daitezke.	Artefaktuak SORMENA ETA IDEIA ORIGINALAK erakutsi ditu, GUTXIENEZ ALOR BATEAN (Musikala, Teknologikoa, Plastikoa).	Artefaktuak SORMENA ETA IDEIA ORIGINALAK erakutsi ditu ARLO GEHIENETAN (Musikala, Teknologikoa, Plastikoa).	Artefaktuak SORMEN HANDIKO LANA erakusten du eta IDEIA ORIGINALAK GAUZATU dira.
AURKEZPENA	0,5					
Aho hizkuntza (Hizkuntza-Kalitatea, Ahozkeria eta Hiztegia)	0,1	Hizlariak EZ DU GARBI HITZ EGITEN eta AHOZKERA ERRORE LARRIAK ditu.	Hizlariak GEHIENETAN GARBI HITZEGITEN DU baina AHOZKERA ERRORE LARRIAK DITU.	Hizlariak GARBI HITZ EGITEN du eta EZ DITU AHOZKERA ERRORE LARRIAK.	Hizlariak GARBI ETA AHOZKERA ONA du, hiztegi egokia eta ENTZULEGOARE NTZAT BERRIA IZAN DAITEKEEN HITZ BERRIAK erabiliz.Hitz horiek EZ DITU AZALTZEN.	Hizlariak OSO GARBI ETA AHOZKERA OSO ONA du, hiztegi egokia eta ENTZULEGOARE NTZAT BERRIA IZAN DAITEKEEN HITZ BERRIAK erabiliz.Hitz horiek AZALDU EGITEN DITU.
Gorputz Hizkuntza (Jarrera, Begirada, Aurpegi-Espresioa)	0,1	Jarrera OSO URDURIA edo OSO ARDURAGABEA da, BEGIRADA EZ DU ENTZULEGORA ZUZENTZEN eta aurpegi-espresioak APATIA ETA ASPERTUA dagoela transmititzen ditu.	Jarrera URDURIA edo ARDURAGABEA da, BEGIRADA OSO GUTXITAN ENTZULEGORA ZUZENTZEN DU eta aurpegi-espresioak gaiarekiko INTERES GUTXI duela transmititzen du.	Jarrera egokia da, BEGIRADA DEZENTE ENTZULEGORA ZUZENTZEN DU eta aurpegi-espresioak gaiarekiko INTERES duela transmititzen du.	Jarrera egokia da, BEGIRADA GEHIENETAN ENTZULEGORA ZUZENTZEN DU eta aurpegi-espresioak gaiarekiko INTERES HANDIA duela transmititzen du.	Jarrera LASAIA ETA SEGURTASUNEZ betea da, BEGIRADA BETI ENTZULEGORA ZUZENTZEN DU eta aurpegi-espresioak gaiarekiko INTERES HANDIA duela transmititzen du.
Edukia menderatzea	0,1	Taldekideek epaimahaikideak eginiko galderak EZIN DUTE ERANTZUN	Taldekideek epaimahaikideak eginiko GALDERA BATZUK erantzun ditzakete, baina ARGUDIO ESKASAK emanez.	Taldekideek epaimahaikideak eginiko GALDERA BATZUK erantzun ditzakete, baina ARGUDIO ESKASAK emanez.	Taldekideek epaimahaikideak eginiko GALDERA BATZUK erantzun ditzakete, ARGUDIO EGOKIAK emanez.	Taldekideek epaimahaikideak eginiko GALDERA GUZTIAK erantzun ditzakete, ARGUDIO EGOKIAK emanez.
Originaltasuna (Sormena, Ideia Originalak)	0,1	Aurkezpenak EZ DU SORMEN LANIK ERAKUSTEN	Aurkezpenak SORMEN IZPI BATZUK erakusten ditu, eta ZENBAIT	Aurkezpenak SORMENA ETA IDEIA ORIGINALAK	Aurkezpenak SORMENA ETA IDEIA ORIGINALAK	Aurkezpenak SORMEN HANDIKO LANA erakusten du eta

		EZTA IDEIA ORIGINALIK ERE.	ZANTZU ORIGINAL aipa daitezke	erakutsi ditu, nahiz eta baliabide gutxi batzuk erabili.	erakutsi ditu baliabide anitzak erabiliz	IDEIA ORIGINALAK GAUZATU dira.
Sintesiaren kalitatea	0,1	Aurkezpena EZ DA MODU ANTOLATUAN ETA KOHERETEAN egin	Aurkezpena MODU ANTOLATUAN egin da baina emandako INFORMAZIOA ESKASA da.	Aurkezpena MODU ANTOLATUAN egin da eta emandako INFORMAZIOA NAHIKOA izan da.	Aurkezpena MODU ANTOLATUAN egin da eta emandako INFORMAZIOA EGOKIA izan da.	Aurkezpena MODU ANTOLATUAN egin da eta emandako INFORMAZIOA EGOKIA izan da.

7.- Eranskinak

7.1.- Artefaktu Adibideak

Theo Jansen

http://www.revistaenie.clarin.com/arte/Theo-Jansen-solto-sus-bestias-en-Tecnopolis_0_752924953.html

www.youtube.com/watch?v=BYQ9bOX2kF4

<https://www.youtube.com/watch?v=Rv1tz4XXxbE>

Oldenburg Artefaktos Urbanos

www.google.es/search?q=Oldenburg+obra+urbana&client=firefox-a&rls=org.mozilla:es-ES:official&biw=1280&bih=859&tbm=isch&source=Inms&sa=X&ved=0CAYQ_AUoAWoVChMI1tDFt_DfxwIVCQoaCh1FGQTY&dpr=1

Pablo Gamboa Eskultorea

<http://www.laselecta.org/2009/04/plasticofagia-esculturas-de-pablo-gamboa/>

[Krzysztof Wodiczko](#) (etxearen kontzeptua interesgarria iruditzen zait)

<http://catalogo.artium.org/dossieres/1/krzysztof-wodiczko/obra/instrumentos-publicos/homeless-vehicle>

Hans Hemmert

<http://inicios.es/2008/de-plastico-y-aire-hans-hemmert/>

Matthew Shlian

www.google.es/search?q=Matthew+Shlian&tbm=isch&tbo=u&source=univ&sa=X&ved=0CCYQsARqFQoTCPWY9s6x4sgCFYTHFAodCpoFzA&biw=1210&bih=607

Parques de Recreo y Paseo con Artefactos

www.youtube.com/watch?v=acp14rG2_Mo

Parques Niki de Saint Phalle

www.google.es/search?q=Matthew+Shlian&tbm=isch&tbo=u&source=univ&sa=X&ved=0CCYQsARqFQoTCPWY9s6x4sgCFYTHFAodCpoFzA&biw=1210&bih=607

Poesia Visual Chema Madoz

www.google.es/search?q=edgar+gamboa+escultor&client=firefox-a&rls=org.mozilla:es-ES:official&biw=1280&bih=859&source=lnms&tbm=isch&sa=X&ved=0CAYQ_AUoAWoVChMI4I2WrOXfxwIVxl4aCh1s9gl_#tbm=isch&q=poesia+visual+chema+madoz

Poesia Visual Joan Brossa

www.google.es/search?q=edgar+gamboa+escultor&client=firefox-a&rls=org.mozilla:es-ES:official&biw=1280&bih=859&source=lnms&tbm=isch&sa=X&ved=0CAYQ_AUoAWoVChMI4I2WrOXfxwIVxl4aCh1s9gl_#tbm=isch&q=poesia+visual+joan+brossa

Percusión Corporal

https://www.youtube.com/watch?v=_Y31hg4jGdA

www.youtube.com/watch?v=M_iq--BQeI4

www.youtube.com/watch?v=Guc4Jk9IKYo

Facto , Festival de Artefactos Sonoros

www.youtube.com/watch?v=suKzn1OnqWg

Xavi Lozano

www.youtube.com/watch?v=BQAv0_oGE8c

www.youtube.com/watch?v=dzWRYkR14_s

Orquesta de Instrumentos Reciclados de Cateura

www.youtube.com/watch?v=l4XXnjYGojM

AfterARCO: Noches bajo un Lienzo Digital

<http://blogs.elpais.com/arte-en-la-edad-silicio/2013/02/afterarco-noches-bajo-un-lienzo-digital.html>

Proyección sobre Fachada en Berlin

<https://www.youtube.com/watch?v=8VnCoH7YyBU>

Anuncio con Impacto Social mediante Artefactos

<https://www.youtube.com/watch?v=E2nc0hk-Wps>

Aristarkh Chernyshev.

<http://collabcubed.com/2012/03/05/aristarkh-chernyshev-new-media-sculptures/>



7.2.- Talde Inprimakia

LEHEN HEZKUNTZA 2019 / 20

ORDENAGAILU TALEA / TALDE PRAKTIKOA	EKIPOAREN E-MAIL BAT: EKIPOAREN TELEFONO BAT: EKIPOAREN IZENA (aukerazkoa):
DIZIPLINARTEKO PROIEKTUA/LANA: "ARTEFAKTUA"	
(*Alfabetikoki izen-abizenak)	
Argazkia	IZENA: *ABIZENAK: E-MAILA: OHARRAK:
IZENA: *ABIZENAK: E-MAILA: OHARRAK:	Argazkia
Argazkia	IZENA: *ABIZENAK: E-MAILA: OHARRAK:
IZENA: *ABIZENAK: E-MAILA: OHARRAK:	Argazkia
Argazkia	IZENA: *ABIZENAK: E-MAILA: OHARRAK: